



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailak 16**

**Vitoria-Gasteiz, 16 de julio de 2024**

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK DIRULAGUNTZA BAT ONARTU DU "EUSKAL EDITOREEN ELKARTEARENTZAT", SEKTOREA NAZIOARTEAN ZABALTZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskatuta, 27.000 euroko dirulaguntza onartu du "Euskal Editoreen Elkarteari" zuzenduta. Apirilean egindako "Bologna Children 's Book Fair" ekitaldian parte hartzeko laguntza da.

Laguntza hori sailak sustatu nahi dituen balioetan kokatzen da, hala nola, euskal argitalpen-sektorearen eta ilustrazioaren nazioarteko sustapena, bai eta Euskadiko kultura- eta sormen-sektorearen defentsa eta sustapena ere.

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### **LANBIDEK 400.000 EUROTAN HANDITU DITU BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZAK**

- **Erabaki horrek berekin dakar programen gauzatzeko epea 6 hilabetetan luzatzea eta, horrela, bermatzea onuradunek behar duten laguntza modu eraginkorrean jasotzen dutela**

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erabaki du 396.463,07 eurotan handitzea honako dirulaguntza hauen zenbateko osoa: bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak gizarateratzeko eta laneratzeko laguntza-programa esperimentalak finantzatzeko bideratuak. Erabaki horri esker, beste sei hilabetez finantzatu ahalko da ibilbide mistoen proiektu horien gauzatzeko eta, horrela, bermatuko da onuradunek behar duten laguntza modu eraginkorrean jasotzen dutela.

Zehazki, hamalau programa aukeratu ziren zuzeneko diru laguntza horiek jasotzeko, hiru lurraldeetan banatuta. Aipatutako zuzkiduraren handitzea salbuespenezkoa da; eta arrazoi nabarmenak daude interes publiko aldetik, baita sozialetik zein ekonomikotik ere. Programa horiek hainbat kolektibori zuzenduta daude, hala nola gaixotasun mentala duten pertsonen, kualifikazio urriko gazteen edo babes-sistematik datozenen eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen, besteak beste.

Zuzeneko diru laguntza horiek handitzeak bi helburu nagusi ditu: Alde batetik, hasieran aurreikusitako laguntza-aldia luzatzea (hartzaileen enplegarritasuna eta bizi-kalitatea hobetzen dela bermatzeko, eta, hala, hasitako laguntza-prozesuak ez hausteko); eta, bestetik, sistemen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratzea (lehentasunezko arretako kolektiboen enplegua sustatzeko programak abian jartzeko). Beti ere, 15/2023 Enpleguaren Legean jasotako aurreikuspenei jarraituta.

Euskal gizarteak hainbat estrategia garatu behar ditu desberdintasun- eta bazterketa-arriskuari aurre egiteko eta biztanleria ahulenaren babesari eusteko; batez ere, gizarateratze-sistema eta sistema hori egituratzen duten eragileak indartzeko. Zeren eta, azken urteotan, kolektibo horien premiak areagotu egin baitira, gizarteak bizi duen krisi-egoeraren ondorioz.

Beraz, horrelako proiektuak garatzen eta gauzatzen jarraitzeak laguntzen du ondorio horiek arintzen, betiere sareko lan baten bidez. Horrela, hainbat zaugarritasun dituzten pertsonen premia ugariak erantzun ahalko dira.

## Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna

### EUSKO JAURLARITZAK 92,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ENPRESETAN I+G BULTZATZEKO HAZITEK PROGRAMARA

Eusko Jaurlaritzak **92.500.000 euroko** diru-hornidura onartu du gaur goizean Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak enpresen I+G finantzatzeko sustatzen duen **HAZITEK laguntzen programarako**. HAZITEKek 42.500.000 euro bideratuko ditu lehiakortasun-proiektuak finantzatzera eta 50.000.000 euro proiektu estrategikoak finantzatzera.

Gaur onartu den ebazpenaren helburua 2024ko ekitaldirako laguntza-programa honen II. faserako deialdia egitea da, 2024ko urtarrilaren 10ean deitutako I. fasean aldeztutako proiektuei laguntzak esleitzeko. Orain, lehenengo fasean hautatu ziren eta programaren baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuei emango zaien dirulaguntza ebatziko da, beraz. Modu horretan, erakunde onuradunei onartutako proiektuen jakinarazpena aurreratu zaie, exekuzio-aldiaren hasieran edo baita abian jarri aurretik ere, eta horrek proiektuen eragin pizgarria lortuko du, horien planifikazioa hobetzeko aukera emanez.

Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta agindu honetan inplikaturako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira. Eskabidean sartzeko eta eskabidea betetzeko, jarraian adierazitako egoitza elektronikoa erabiliko da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1030809/> (gaztelania)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1030809/> (euskara)

- Hasiera-data: deialdiaren ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Azken eguna: 2024ko irailak 10

## Segurtasuna

### EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2024KO HAUTESKUNDEAK EGIN ONDOREN, ALDERDI POLITIKOEN OHIKO FUNTZIONAMENDURAKO DIRULAGUNTZA ONARTU DA

- Aurrekontuek guztira 4.536.000 euroko partida aurreikusten zuten 2024rako, bi ordainketa-agindutan banatuta, apirilaren 21eko hauteskundeen ondoren alderdien ordezkarietara egokitu ahal izateko

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Legebiltzarrean ordezkarietza duten alderdi politikoei edo koalizioei emandako dirulaguntzen bigarren ordainketa, ohiko funtzionamendu-gastuak finantzatzeko. 2024ko apirilaren 22tik abenduaren 31ra arteko aldiari dagokio, 3.147.934,43 €-ko zenbatekoarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek 4.536.000 euroko partida aurreikusten dute 2024rako. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen deialdia apirilaren 21ean egin zenez, bi alditan banatu zen, ordainketa egiteko: lehena 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko apirilaren 21era bitartekoa izan zen, eta bigarrena apirilaren 22tik 2024ko abenduaren 31ra bitartekoa.

Banaketa kalkulatzeko, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetako emaitzak hartzen dira kontuan, botoetan eta eserlekuetan, kasu honetan, 2024ko apirilaren 21ean egindakoak:

ALDERDI POLITIKOA	EAE BOTOAK GUZTIRA (*)	ESERLEKUAK
EAJ-PNV	372.456	27
EH Bildu	343.609	27
PSE-EE (PSOE)	150.752	12
PP	98.144	7
Sumar	35.402	1
VOX	21.696	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.022.059</b>	<b>75</b>

(\*) Dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten Euskal Autonomia Erkidegoko botoak, guztira.

ALDERDI POLITIKOA	DSIRULAGUNTZA GUZTIRA
EAJ-PNV	1.142.526,67 €
EH Bildu	1.083.294,31 €
PSE-EE (PSOE)	477.433,23 €
PP	299.457,62 €
Sumar	86.682,76 €
VOX	58.539,84 €
<b>GUZTIZKOA</b>	<b>3.147.934,43 €</b>

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 1.000.000 EURORA IGO DU ERTZAINZA EUSKALDUNTZEKO INBERTSIOA**

- **2024rako aurreikusitako aurrekontuko partida handitu da, lanorduetatik kanpo euskara doan ikasteko agenteen eskaera handiari erantzuteko**
- **Gainera, HABErekin duen akordioa luzatuko da, euskara-ikastaroak beste urtebetez, 2025era arte, mantentzeko**

Gobernu Kontseiluak gaur goizean erabaki du Ertzaintzako agenteek euskalduntzeko ikastaroetan lanorduetatik kanpo eta doan parte hartu ahal izateko Segurtasun Sailak eta HABE – Helduen alfabetatze eta berreuskalduntzerako erakundeak ezarritako akordioa denboran eta aurrekontuan zabaltzea. 2024-2025 ikasturterako inbertsioa 1.000.000 eurokoa izango da.

Indarrean dagoen akordioa 2022ko irailaren 22an izenpetu zuten, eta hasierako 600.000 euroko aurrekontua aurreikusten zuen 2022-2023 ikasturterako, eta gero ikusi zen ez zela nahikoa eskaeren hasierako aurreikuspenak nabarmen gora egin zuenez. Hori dela eta, 2023an, ikasturte horretarako izendatutako kreditua 850.000 eurora arte igo zen, eta, gainera, akordioa luzatzeko erabakia hartu zen ikastaroak beste urtebetez (2023-2024) mantentzeko, 850.000 euroko zenbateko berarekin.

Orain, berriz ere, Ertzaintzako langileek euskara-ikastaro horietan parte hartzeko interesa mantentzen denez, 2024rako izendatutako kreditua berriz ere ez da nahikoa izango aurkeztu diren eskaerei aurre egiteko. Hori dela eta, Jaurilaritzak onartu du 150.000 euroan gehitzea 2023-2024 ikasturterako aurrekontua, eta, horrela, 1.000.000 euroko inbertsioa egingo du Ertzaintzako agenteak euskalduntzeko. Gainera, 2024-2025 ikasturtean ere mantendu egingo du (550.000 euro 2024ko ekitaldirako eta 450.000 euro 2025erako).

### **Elkarlanean 2017tik**

HABE erakundea eta Segurtasun Saila 2017tik ari dira elkarlanean, urte horretan ezarri baitzen urtero berritzen joan den lehenengo hitzarmena. Akordioak HABEren kargu uzten du Ertzaintzako langileentzat aurrez aurreko nahiz autoikaskuntza modalitateko ikastaroak antolatzekeo jarduera materialen, teknikoen eta zerbitzuzkoen kudeaketa.

Ekimen horrek errolda euskalduntzeko bidean aurrera jarraitzeko aukera ematen dio Ertzaintzari, horixe izanik Segurtasun Sailaren lehentasunezko helburuetako bat herritarrei zerbitzu hobea eman ahal izango dien polizia-erakundea sendotzeko, agenteek herritarrekin harremana euskaraz izateko gero eta eskaera handiagoari erantzunez.

## Hezkuntza

### **EUSKO JAURLARITZAK 72 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZAKO BEKETARA**

- **Behar bereziak dituzten ikasleen kasuan beketara iristeko atalaseak egokitzeak familia gehiagori ahalbidetuko die laguntzak lortzea. Hezkuntza Sailak bermatu egiten du baldintzak betetzen dituzten familia guztiek jasoko dutela beka**

Eusko Jaurlaritzak eutsi egingo die seme-alaben unibertsitatez kanpoko hezkuntzari aurre egiteko familien gastuak ordaintzeko laguntzei, 72 milioi euroko inbertsioarekin. Deialdia Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntza Sailak proposatuta. Honek aldatu egin ditu Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) ikasleei laguntzeko sarbide-atalaseak eta, ondorioz, bekak jasoko dituzten familien kopuruak gora egingo du aurreko ekitaldiarekin aldean. Horretarako, aurreko bideratutako zenbatekoa lau milioi euro handitu da. Beketarako sarbidea bermatuta dago baldintzak betetzen dituzten familia guztientzat.

Laguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskatu ahal izango dira, uztailaren 22tik irailaren 30era arte, aurreikusitakoaren arabera. Haur Hezkuntzatik hasi eta goi-mailako heziketa-zikloetaraino eskatu ahal izango dira bekak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, musikako eta dantzako oinarrizko irakaskuntzak, Batxilergoa, Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako zikloak, arte-irakaskuntza profesionalak, kirol-irakaskuntzak, hizkuntza-irakaskuntzak hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialak eta Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak.

### **Hezkuntzarako eskubidea bermatzea**

Beken deialdi honen helburua ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzea da, muga ekonomikoak edo desorekak konpentsatuta berdintasun-egoeran izan dezaten hezkuntzarako sarbidea.

Bekek osagai hauetako bat edo batzuk izan ditzakete: kuota-osagaia, eskola-materialaren osagaia eta jantoki-osagaia.

**112.170** ikasle izan dira beka hauen onuradun unibertsitatez kanpoko hezkuntza-mailetarako 2023-2024 ikasturte amaitu berrian. Hezkuntzak gizarte-kohesioa lortzeko zeregin garrantzitsua betetzen duela jabetuta, Hezkuntza Sailak deialdi hau indartu du ekitate-irizpideei jarraituz, ikasle kalteberetikiko arreta, hezkuntzarako sarbide-berdintasuna eta berdintasunaren sustapena indartuz.

## Informazio gehiago

Deialdiari buruzko informazio guztia helbide honetan kontsulta daiteke:  
<https://www.euskadi.eus/becas-y-ayudas-al-estudio-para-la-escolarizacion-de-estudiantes-de-niveles-no-universitarios/web01-a2hikas/es/>

Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko ebazpenen jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, <https://euskadi.eus> web-helbidean, eta Hezkuntza Sailaren web-orrian, <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>.



## Hezkuntza

### **1,4 MILIOI EURO IRALE PROGRAMARI ATXIKITAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du itunpeko ikastetxeei IRALE programaren esparruan liberatutako irakasleak ordezkatzen laguntzeko dirulaguntzen deialdia. Aurten ere, Eusko Jaurlaritzak laguntza ematen die euskarazko hizkuntza-gaikuntza ikasi edo hobetzeko denbora ematen duten irakasleak ordezkatu behar dituzten ikastetxeei.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute 2024an (urtarrila-ekaina, iraila-abendua) Hezkuntza Administrazioak liberatutako edo onartutako irakasle izangaietako bat edo gehiago duten ikastetxeek, eskola-ordutegiaren barruan eman beharreko ikastaroak egiteko. Kasu honetan, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prestakuntza-ikastaroak edo hizkuntza-gaikuntza indartzeko ikastaroak egingo dituzte euskarazko C1 maila duten profesionalak.

#### **Irakasleak euskalduntzeko konpromisoa**

Hezkuntza Sailak 80ko hamarkadan hasi zituen irakasleak euskalduntzeko eta alfabetatzeko lanak. IRALE (Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzea) irakasleen hizkuntza-gaikuntzako programak, beraz, hiru hamarkadatik gorako bidea egin du. Bost zentrotan banatzen diren 60 irakaslek egiten dute lan bertan (bi Bilbon eta bat Donostian, Gasteizen eta Eibarren, hurrenez hurren) eta euskaltegiekin lankidetzan osatzen dute beren eskaintza.

Irakasleen hizkuntza-gaikuntzan gertatu den eraldaketa tipologikoak premia berriak sortu ditu, hasierakoak ez bezalakoak. Horregatik, gaur egun, IRALE programaren helburuetako bat irakasleak euskalduntzea da, baina gehiago arduratzen da irakasle horien euskara maila hobetzeaz bai ahozkoan bai idatzizkoan, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko edo pribatuetan irakasten dihardutenen kasuan. Ildo horretan, euskarazko irakaskuntzarako eta irakasleen prestakuntza soziokulturalerako prestakuntza didaktiko eta metodologikoa ere eskaintzen du. Euskarazko material didaktikoen hizkuntza-egokitasunaren azterketan ere parte hartzen du IRALEk.

## Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza

### **EUSKAMPUS FUNDAZIOARENTZAKO LAGUNTZA, "KULTURA ZIENTIFIKOA: EKINTZA PERFORMATIBOAZ HARATAGO" SOZIALIZAZIO-PROIEKTUAREN BIDEZ ZIENTZIAREN GIZARTE-EZAGUTZA SUSTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren proposamenez, 260.000 euroko laguntza onartu dio gaur Euskampus Fundazioari, "Kultura zientifikoa: ekintza performatibotik haratago" izeneko sozializazio-proiektuaren bidez zientziaren gizarte-ezagutza sustatzeko.

Euskampus Fundazioak, Kultura Zientifikoko Unitatearen bitartez, lan handia egin du Euskadin garatutako ikerketa-jarduera zabaltzeko eta zabaltzeko. Jarduera hori Zientzia eta Teknologiako Espainiako Fundazioak (FECYT) aitortu du.

Zientziak eta teknologiak zeregin nagusia duten mundu honetan, kultura zientifikoa eskuratzea eta zabaltzea lehentasun sozial eta hezitzailea da. Kultura zientifikoa jakintza zientifikoaren arlo desberdinei buruzko ezagutza multzo bat biltzen du, eguneroko xehetasun zientifiko-teknologikoak baloratzeko iritzi kritikoa garatzen laguntzen dutenak. Kultura zientifikoa aukera ematen dio gizarteari erabakiak kontzienteki hartzea bermatuko duten irizpideak emateko. Horregatik, oso garrantzitsua da kultura zientifikoa transmititzea eta sustatzea, ez laguntzako ekimenen bidez, baizik eta inpaktuko ekimenen bidez.

Finantzatu nahi den proiektua, "KULTURA ZIENTIFIKOA: KULTURA ZIENTIFIKOA: EKINTZA PERFORMATIBOAZ HARAGO", berez kultura zientifikoa eskuratzearen aldeko ekintza bat izan nahi duen programa bat da, denboran zehar iraungo duen eta etengabe errepikatzen den (etengabe) proiektu batean oinarritzen dena, testuinguru sozialera egokitua (aldaketak eta egokitzapen-prozesuak barne) eta mundu zientifikotik kanpoko publiko objektiboan eragitea helburu duena, aldaketa bat ahalbidetuz, jakintzak emanez, komunikabideetan, adibidez, oso bitarteko ugari dituzten eta iristen diren irizpideetan eta pertzepziorik ez dutenetan oinarritutako jarrera hartzeko.

## Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza

### **EUSKAMPUS FUNDAZIOARENTZAKO LAGUNTZA LTC-SAREA INNOVA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA EKIMENA BULTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren proposamenez, 235.000 euroko laguntza onartu dio gaur Euskampus Fundazioari, Mugaz Gaindiko Lankidetzak Laborategien (LTC) sarea sustatzeko, LTC SAREA INNOVA izeneko ekimen berri eta berritzaile baten bidez.

Euskampus Fundazioa 2011n sortu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak, ekonomia eta kultura eraldatzeko prozesuan bultzatzaile gisa jarduten du, nazioarteko garrantzia duen prestakuntza-, ikerketa-, transferentzia- eta berrikuntza-polo bat eratuz eta nazioarteko dimentsioa duen campus akademiko bat sendotuz.

LTCak bikaintasun-ikerketaren nazioartekotze-ekimenak dira, eta ikerketatik berrikuntza sustatzen dute, horien artean gabeko laborategiak izanik. Horiek ikerketa-proiektu komun baten eta dauden baliabideen (giza baliabideak, taldeak, funtzionamendu-kostuak) trukearen inguruan definitzen dira. Bi ikertzaile nagusik koordinatzen dituzte, bata Euskadikoa eta bestea Bordelekoa, eta hainbat zentrotatik etor daitezkeen tokiko taldeak biltzen dituzte, betiere baterako ikerketa-proiektuari laguntzen badiote.

Mugaz Gaindiko Lankidetzak Laborategien (LTC) sarea esponentzialki zabaltzen joan da azken 3 urteetan. Are gehiago, esparru askotan heldutasun- eta sendotze-egoera lortu du nazioarteko bikaintasun-zientziari dagokionez. Horregatik, laborategi horiekin lortutako esperientziaren ondoren, LTC SAREA INNOVA izeneko ekimen berri bat bultzatuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- 1.- Ikerketa- eta berrikuntza-laborategiak lurraldearekin konektatzea, gauzatutako ekintzen eragina maximizatzea.
- 2.- Azterketa-ekintzen garapena ahalbidetzea, LTC Sarea bere osotasunean zein LTC bakoitza, bereziki, birfokatze estrategikorako oinarri izan daitezen.
- 3.- Ezagutzaren transferentziaren eta berrikuntzaren arloko aholkularitza egokitzea.
- 4.- Talentua erakartzea eta atxikitzea.
- 5.- ENLIGHT Thematic Networksetan (ETN) sarea aktibatzea.

Euskampusen abian jarritako jarduerak berri hori funtsezkoa izango da Euskadiko laborategi berezi eta bakarrak diren LTCak indartzeko. Laborategi horiek gure ikerketaren bikaintasunerako eta nazioartekotzerako lankidetzak gune bat artikulatzen laguntzen ari dira, eta, bereziki, Euskadi-Nafarroa-Akitania euroeskualean ikerketa- eta berrikuntza-lankidetzak bultzatzen, hori baita zuzeneko laguntza hau ematea oinarritzen den gizarte-intereseko arrazoia.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### EUSKO JAURLARITZAK EKOIZPEN EKOLOGIKO ZIURTATURAKO TRANTSIZIORAKO LAGUNTZAK DEITUKO DITU

- **«Ekoizpen ekologikoan sartzeko gidak» sortzea; bihurteta-proiektuen bideragarritasun-azterlanak; erakusketa- eta bisita-jarduerak; nekazaritza-ustategien aholkularitza integrala eta espezializatua eta birmoldaketa**

Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio 2024rako ekoizpen ekologiko ziurtaturako trantsiziorako laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen agindua.

Laguntzen barruan, honako ildo hauek ezarri dira: 1. «Ekoizpen ekologikoan sartzeko gidak» sortzeko laguntza; 2. Ekoizpen ekologikora bihurtzeko proiektuen bideragarritasun-azterketak egiteko laguntza; 3. Erakusketa eta bisita-jarduerari laguntzea; 4. Ekoizpen ekologikoa eraldatzeko aholkularitza integrala; 5. Ekoizpen ekologikoan aholkularitza espezializatua; eta 6. Nekazaritza-ustategiak ohiko ekoizpen ekologiko bihurtzeko proiektuak garatzea.

Laguntzak 300.000 euro esleitu zaizkie, pertsona fisiko edo juridikoentzat dira, horien artean kooperatibentzat edo nekazaritzako beste elkarte batzuentzat, baldin eta beren helburuen artean sektoreari buruzko aholkularitza, informazioa eta laguntza ematea badute eta ekoizpen ekologikoan esperientzia egiaztatua badute.

Ekoizle-taldeak eta -antolakundeak ere sartzan dira, eta horiek ezin dute haietara afiliatzeko eskatu, zerbitzua eskuratu ahal izateko. Pertsona juridikoen kasuan, mikroenpresatzat edo ETE´tzat hartu beharko dira.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### EUSKO JAURLARITZAK 1,2 MILIOI EUROREKIN BULTZATU DU NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KOOPERATIBISMOA

- Gaur egun, elikagai-industrien atomizazio handia dago
- Laguntza honen deialdia egiten duen lehen edizioa
- Helburuak: enpresa-integrazioak, enpresa-taldeen lankidetzak eta kooperatiben arteko akordioen garapena

**Amaia Barredo** sailburuak Jaurlaritzaren Kontseiluari jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak nekazaritzako elikagaien kooperatibismoa – **Kooperatu programa** – bultzatzeko sustatu duten agindua, sektorean integratzeko eta kooperatibak elkartzeko prozesuak sustatuz. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta **1.200.000** euro finantzatzeko dira. Horren bidez, lankidetzak ekonomikoak sustatu nahi da enpresa-taldeetan eta kooperatiben arteko akordioetan.

"**Gizarte-ekonomiak, eredu kooperatiboaren bidez**, produktore txikien jardura ekonomiko errentagarri bihurtzeko balio izan du historikoki, ahaleginak batuz eta eskala-ekonomiak lortuz, balio demokratiko eta solidarioak praktikan jarritz, enpresa egiteko modu espezifiko gisa. Hala ere, gaur egungo testuinguru ekonomiko enpresarial globalizatuan, lortutako unitate ekonomiko-enpresarialak ez ziren nahikoak "nabarmendu du Amaia Barredo sailburuak.

Barredo-ren ustez, "oro har, elikagai-industrien **atomizazio handia dago**", eta, horregatik, "enpresa-integratzaile berritu behar dira, sektorea enpresa-ikuspegitik jasagarria izan dadin eta landa-herriak bizirik iraun eta gara daitezten".

"Kooperatiben eta elkarten integrazioa bultzatzeak eta sustatzeak erakunde horien lehiakortasuna, birdimentsionamendua, modernizazioa eta nazioartekotzea bultzatuko ditu" gaineratu du sailburuak.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, 1.200.000 euroko finantzaketarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako kredituetatik baino ez datoz. Diru-kopuruak **280.000 euro** dira nekazaritza-produktuaren lehen mailako produktoria dedikatzen diren erakundeentzat, eta **300.000** euro nekazaritzako elikagaien gainerako erakundeentzat.

Bategite edo integrazio gastuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen %100 era irits daiteke; kooperatiba-arteko akordioen kasuan, berriz, dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen % 70 izango da gehienez

Erakunde onuradunak honako hauek dira: nekazaritzako elikagaien kooperatibak, bigarren mailako nekazaritzako elikagaien kooperatibak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak eta merkataritza-erakundeak, baldin eta beren kapital sozialaren %50 baino gehiago lehen aipatutako erakundeetako batena bada. Sozietate anonimoa bada, haren akzioek izendunak izan beharko dute.

Babestutako modalitateak honako hauei buruzkoak dira: entitate bat edo gehiago erakunde bakar batean integratzea, integratuen nortasun juridikoa azkendu gabe; erakunde batek bi edo gehiago xurgatuz bat egitea, edo entitate guztiak deseginez eta erakunde berri bat eratuz; lankidetzak ekonomikoko hainbat modalitatearen bidez elkartzea, hala nola enpresa-elkartek, kooperatiben arteko akordioak eta kooperatiba-taldeak, eta kooperatiba mistoak.

Horrela, integrazio eta bategite prozesutik eratorritako gastuak finantzatuko dira, hala nola aholkularitza, notariotza, finantza-kostuak eta prozesuari lotutako inbertsio-eragiketak.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### **MADRILGO UNIBERTSITATE KONPLUTENTSEKO IKASLEEK AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUAN PRAKTIKAK EGIN DITZATEN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTU DUTE**

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzea onartu du, ikastetxe horretako ikasleek Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak praktika akademikoak egin ahal izan ditzaten.

Maria Jesus San Jose Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak proposatuta, kontseiluak oniritzia eman dio hezkuntza-arloko lankidetza-hitzarmen horri. Hitzarmen horri esker, Complutenseko ikasleek, irakaskuntza ofizialetan zein propioetan matrikulatuta, kanpoko praktika akademikoen programa bat egin ahal izango dute Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan. Organo horrek hartuko du bere gain auzitegi-zientzien arloan etorkizuneko profesionalak izango diren ikasleak prestatzeko lana.

Praktikak arautzeko maroa ezartzen duen hitzarmenak ez dio Gobernuari inolako konpromiso ekonomiko edo finantzariorik ekartzen.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN PARA “EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA” PARA PROPORCIONAR EL SECTOR EN EL ÁMBITO INTERNACIONAL**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a petición del departamento de Cultura y Política Lingüística, una subvención dirigida a “Euskal Editoreen Elkartea” por valor de 27.000 euros. Se trata de una ayuda para sufragar su presencia en el evento “Bologna Children’s Book Fair” (celebrado en abril).

Esta ayuda se enmarca en los valores que el departamento busca fomentar, como son, la promoción internacional del sector editorial y de la ilustración vasca, así como la defensa e impulso del sector cultural y creativo de Euskadi.



## Economía, Trabajo y Empleo

### **LANBIDE AMPLÍA EN 400.000€ LAS SUBVENCIONES PARA PROYECTOS DE ACOMPAÑAMIENTO PARA LA INSERCIÓN SOCIOLABORAL DE PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN**

- **Esta decisión supone aumentar en 6 meses el plazo de ejecución de dichos programas y garantizar así la eficaz prestación del apoyo requerido por las personas beneficiarias**

El Servicio Vasco de Empleo Lanbide ha acordado ampliar en 396.463,07 euros la cuantía total de las subvenciones para financiar diversos programas experimentales de acompañamiento para la inclusión sociolaboral de personas en situación o riesgo de exclusión. Gracias a esta decisión se podrá financiar durante seis meses más la ejecución de estos proyectos de itinerarios mixtos y garantizar la eficaz prestación del apoyo requerido por las personas beneficiarias.

En concreto, fueron catorce programas, repartidos entre los tres territorios, los seleccionados para recibir estas subvenciones directas, cuya ampliación actual tiene un carácter excepcional y evidentes razones de interés público, social y económico. Están dirigidos a diferentes colectivos, como personas con enfermedad mental, jóvenes de baja cualificación o procedentes del sistema de protección y mujeres víctimas de violencia de género, entre otros.

La ampliación de estas subvenciones directas tiene dos objetivos principales. Por un lado, incrementar el periodo de acompañamiento inicialmente previsto para garantizar la mejora de la empleabilidad y calidad de vida de las personas destinatarias y no romper los procesos de acompañamiento iniciados. Por otro lado, incidir en la importancia de la coordinación intersistema para poner en marcha programas dirigidos a fomentar el empleo de colectivos de atención prioritaria, siguiendo así las previsiones contenidas en la Ley de Empleo 15/2023.

El riesgo de desigualdad y exclusión al que se enfrenta la sociedad vasca hace preciso el desarrollo de estrategias para hacerle frente, reforzando el sistema de inclusión y a los agentes que lo estructuran para mantener la protección de la población más vulnerable, cuyas necesidades han aumentado a consecuencia de la situación de crisis que se viene viviendo en los últimos años.

Por tanto, continuar apoyando el desarrollo y ejecución de proyectos de estas características contribuye a paliar dichas consecuencias a través de un trabajo en red que atienda las múltiples necesidades de las personas con diversas vulnerabilidades.

